

# EUSKO KANP



## 6. BAZKIDE GARRANTZITSUENAK

Gure udalekua aurrera eramateko behar ditugun hornitzaile garrantzitsuenak aipatuko ditugu.

Gure udalekuan, bazkaltzeko zerbitzua eskainiko dugu. Bertan, gure baratzetik lortutako lehen gaiekin egindako janaria emango dugu, baina askotan, baratzetik lortzen duguna ez da nahikoa izango. Orduan, behar ditugun lehen gai hauek, herriko baserrien azokan erosiko ditugu.

Talde asko izanez gero, irakasle gehiago beharko genituzke, eta beraz, kontratatutako jendea bazkide garrantzitsuak izango lirateke. Gainera, gure udalekua eta bertan edukiko dugun kirol zelaia eraikitzeko, Yesilan enpresa kontratatuko dugu, beraz, bazkide garrantzitsua izango da. Jangelan lan egingo duten pertsonak eta zaintzan egongo diren pertsonak ere oso garrantzitsua dira.

Gure enpresak behar duen materiala, inguruko herriei edo gure udalekua dagoen tokian erosiko genuke, hau da, inguruko enpresa txikiei erosiko genieke. Gure intentzioa azkenean, hiriko ekonomia garatzea, eta sustatzea delako.